



**PTM-mundubat  
erakundearen  
genero-politika**



**PTM**  
mundubat

## AURKIBIDEA

1	SARRERA	2
2	GURE HELBURUAK IDEIETAN	3
3	GURE HELBURUAK ETA EKINTZA- KOPROMISOAK ANTOLAMENDUAREN EGITURAN. ANTOLAKETAREN MAILA	4
4	GURE HELBURUAK ETA EKINTZA- KONPROMISOAK HEGOALDEAN ETA IPARRALDEAN GARATZEN DUGUN LANEAN. MAILA PRAKTIKOA	5
5	JARRAIPENA ETA BERRIKUSKETA	6

## 1. SARRERA

Nazioarteko testuinguruan, arlo guztietan era formalean eta ia-ia aho batez onesten da emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna, alderdi anitzeko hainbat eta hainbat hitzarmen eta itunetan adierazi den bezala. Horra hor CEDAW, Beijingeko ekintza-plataforma...

Edonola ere, legezko aginduak abian jartzea da gaur egungo erronka, generoa erakundean bertan eta erakundeon partaidetzetan zeharkakotzeko ezinbestekoa delako konpromiso sistematikoagoak hartzea.

PTM-mundubat Fundazioak genero-politika hau egin du eta bertako gobernu-organo gorenak onartu du, konpromiso sistematiko hori erakundean bertan eta garapenerako lankidetzan gauzatzen duen lanean lortu ahal izateko.

Arlo guztietan genero-berdintasuna erdiesteko gogoan zeresan handia daukate justiziak eta segurtasunak, jakin badakigulako ikuspegi zabalagoa eta bateratzaileagoa eskainiko digutela eta koherentzia handiagoaz jokatuko dugula hegoaldean zein iparraldean garatzen ditugun partaidetzetan.

Genero-politika horretan, garapenerako lankidetzan bilatzen dugun Partaidetzazko Garapen Endogenoan garapenean kontuan hartu beharreko generoaren ideologiarekin eta politikarekin bat egiten dugula adierazi ondoren, hori guztiori lortzeko helburuak eta ekintzak zehaztu nahi ditugu. Horretarako, aldi berean, gure erakundeko antolamendu-mailari dagozkionak zein Garapenerako lankidetzaren praktikari dagozkionak bereiziko ditugu.

## 2. GURE HELBURUAK IDEIETAN

Duela gutxi, PTM-mundubateko Plangintza Estrategikoa onartu dugu 2006-2009rako.

Plangintza horren oinarri ideologikoa Partaidetzazko Garapen Endogenoa (PGE) da, eta, horri esker, erakundeak konpromiso esanguratsua hartu du genero-ekitatearekin, maila politikoan zein ideologikoan. Horrez gain, generoa bera ezinbestekotzat jo du PGEen bertan, erakunde edo antolamendu mailan zein praktikan edo landa-lanean.

Besteak beste, plangintza horren bidez, PTM-mundubateko kideok generoan garatzen dugun lana erreferentea izango da, bai eta gure ezaugarri bereizgarrietako bat ere.

Genero-berdintasunarekiko konpromisoa estrategian bertan gauzatu da berariaz, honako atal hauetan:

- Gure lankidetzaren esparru teorikoa (II. zatia): garapenean kontuan hartu beharreko generoa, PGEren arrakastarako gakoa.
- Gure lankidetzaren arlokako lerroak (IV. zatia): emakumeen eskubideen aldeko ekintzak.
- PTM-mundubateko antolamendu-egitura (VII. zatia): generoaren erakunde-politika antolamenduan bertan.

Azken atal horretan, PTM-mundubateko generoaren erakunde-politikaren oinarriak ezarri dira, generoa instituzionalizatzeko partaidetzazko prozesuaren bidez erakundearen bertan eztabai-datu ostean eta patronatuak genero-politika onartu ostean. Hona hemen gure genero-politikaren oinarriak:

- 1) Emakumeen eta gizonen arteko paritatezko joera, gure erakundeko erantzukizun-maila guztietan.
- 2) Oinarrizko eta pixkanakako prestakuntza iraunkorra, lan-tresnak garatzeko eta generoarekin zerikusia daukaten aldagai teknikoa, pertsonala eta politikoa ulertzeko.
- 3) Lan-eremuaren instituzionalizazioa, generoaren ikuspegia erakundeko arlo guztietan zeharkakotzeko.
- 4) Lan egiten dugun lurraldeetan, itun estrategikoen ezarpena emakumeen erakundeekin, erakunde feministekin eta iparraldean zein hegoaldean emakumeen eskubideak defendatu eta aldarrikatzen dituzten erakundeekin sareekin.

### 3. GURE HELBURUAK ETA EKINTZA-KONPROMISOAK ANTOLAMENDUAREN EGITURAN. ANTOLAKETAREN MAILA

**1. helburua.** Erakunde bertan paritatea lortzeko joera iraunkorra sustatzea. PTM-mundubateko erantzukizun-maila guztietan, emakumeak eta gizonak koherentziaz banatu beharko dira.

**1.1. ekintza.** Baldintza berberetan, emakumeen edo gizonen aldeko ekintza positiboa ezartzea, lan-talde eta erantzukizun-maila guztietan sexuen arteko paritatea erdietsi ahal izateko.

Ekintza positibo hori, hain zuzen ere, barruko mugikortasunean zein sustapenean, langile berrien kontratazioan eta prestakuntzarako aukeran ezarriko da.

**1.2. ekintza.** Erakundeko barne-funtzionamenduari eta giza baliabideen araubideari buruzko agiriak eta hitzarmenak egokitzea, lan-talde zein erantzukizun-maila guztietan paritatea lortzeko joera iraunkorraren helburua eta adierazitako ekintza positiborako aukera kontuan hartu ahal izateko.

**1.3. ekintza.** Ekintza positiboaren ezarpenaren jarraipena egitea eta urterik urte erakundeko erantzukizun-maila guztietan paritaterantz aurrera egiten den ala ez ebaluatzea.

**2. helburua.** Prestakuntza Plana garatzea, pixkanaka-pixkanaka genero-berdintasunaren arlo teknikoan, politikoan eta pertsonalean sakondu ahal izateko.

**2.1. ekintza.** PTM-mundubateko Prestakuntza Plan Integralean langile guztientzako eta lan-talde zehatzentzako prestakuntza-saioak garatzea garapenerako lankidetzako erakundeek generoaren ikuspegia kontuan hartzean euren lanean eduki behar dituzten inplikazioei buruz.

**2.2. ekintza.** PTM-mundubateko talde teknikoaren partaidetza sustatzea ikastaroetan, tailerretan, topaketetan... Horri esker, tresna teknikoak jarri ahal izango dira abian, iparraldean zein hegoaldean garatzen ditugun programetan eta proiektuetan generoak zer eragin daukan kontuan hartu eta aztertzeke.

**2.3. ekintza.** Emandako prestakuntzari, parte-hartzaileen balioespenari eta hurrengo urterako prestakuntza-proposamenari buruzko urteko txostena egitea.

**3. helburua.** Lan-eremua instituzionalizatzea, beharrezko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta erakundeko erabaki-organoen babesa edukita genero-politikaren betearazpena sustatu eta horren jarraipena egin ahal izateko.

**3.1. ekintza.** Gutxienez arlo bakoitzeko pertsona bat kide daukan lan-eremua sortzea eta PTM-mundubateko organigraman sartzea.

**3.2. ekintza.** Erakundeak generoaren arloan egindako aurrerapenen sistematizazioak egitea aldi-aldi, ekarpenak sendotzeko eta prozesua gardena izateko.

## 4. GURE HELBURUAK ETA EKINTZA-KONPROMISOAK HEGOALDEAN ETA IPARRALDEAN GARATZEN DUGUN LANEAN. MAILA PRAKTIKOA

**1. helburua.** Lankidetzarako eta ekintza humanitariorako garatzen ditugun proiektuetan eta programetan generoa zeharkakotzea.

**1.1. ekintza.** PTM-mundubaten lankidetzarako eta/edo ekintza humanitariorako programak edo proiektuak dauzkaten herrialdeetan, itun estrategikoak ezartzea emakumeen erakundeekin edo erakunde feministekin.

**1.2. ekintza.** Estrategiak trukatzeko eta baterako ekintzarako aukerak ezartzeko asmoz herrialde bakoitzean itun estrategikoak ezarri ondoren, PTM-mundubaten eta emakumeen erakundeen edo erakunde feministen arteko topaketak antolatzea aldiari-aldiari.

**1.3. ekintza.** Partekatzen ditugun proiektuetan eta egituretan generoaren ikuspegia kontuan hartzeko asmoz, erakunde mistoekin batera lan egitea, kasuan kasuko herrialdean gauzatzen dugun Garapenerako lankidetzan estrategikoak direnekin, batez ere.

**1.4. ekintza.** Gure lanaren helburu diren eskualdeetako emakumeen erakundeen eta erakunde mistoen sareetan parte hartzea, beti ere genero-berdintasuna sustatzen badute.

**1.5. ekintza.** Lankidetzarako eta laguntza humanitariorako proiektu eta programetan, adierazle bereziak kontuan hartzea, emakumeek proiektu eta programa horien fase bakoitzean duten partaidetza egiaztatzeko eta generoa zeharkakotzeko erabilitako baliabideak baiezatzeko.

**1.6. ekintza.** Jarduteko gomendioak eskaintzen dituzten txostenak idatzi aldiari-aldiari generoak lankidetzarako eta laguntza humanitariorako proiektu eta programetan izandako ezarpenari buruz.

**2. helburua.** Generoa iparraldean garatzen ditugun ekintzetan zeharkakotzea.

**2.1. ekintza.** Iparraldean garatzen ditugun proiektu guztietan emakumeen egoera, jarrera, baldintzak eta proposamenak (edozein gairi buruzkoak) kontuan hartzea eta informazio hori Hezkuntzako zein Garapenerako Sentsibilizazioko ekintzetan islatzea, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren, garapenerako sentsibilizazioaren eta giza eskubideen arloan genero-berdintasunaren balioei buruzko eztabaida sustatzeko asmoz.

**2.2. ekintza.** Europako edo nazioarteko emakumeen erakundeen eta erakunde mistoen sareetan parte hartzea, beti ere genero-berdintasuna sustatzen badute.

**2.3. ekintza.** Genero-ekitate PTM-mundubatek egindako material guztietan kontuan hartzea. Horretarako, hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta apurka-apurka gizoni eta emakumeei tradizioz esleitutako zereginen desagerpena sustatzea.

## 5. JARRAIPENA ETA BERRIKUSKETA

**5.1.** Agiri honetako zenbait ataletan eskatutako unean uneko txostenei kalterik egin gabe, genero-politika honetako 3. atalean (antolamenduaren egituran) eta 4. atalean (maila praktikoan edo eragilean) ezarritako helburuen eta konpromisoen betearazpenean gertatutako aurrerapenen berri emateko urteko txostena egingo da.

**5.2.** Aldi berean, sistema horren arabera ezarriko dira genero-politika abian jartzeko urteko plan eragileak, eta PTM-mundubateko zuzendaritza-organismoek onartuko dituzte.

**5.3.** Horrez gain, urtero-urtero, erakundeak generoa zeharkakotzean egindako aurrerapen nagusiak sistematizatuko dira, gure bazkideei eta erakunde hurbilei aurrerapenen berri emateko asmoz.

**5.4.** PTM-mundubateko 2006-2009ko Plangintza Estrategikoaren epealdia amaitutakoan, genero-politika hau oso-osorik berrikusiko da, erakundearen unean uneko errealtatera egokitu ahal izateko.

Agiri hau AHO BATEZ onartu zen PTM-mundubateko Batzorde Betearazleak 2006ko ekainaren 15ean egindako ohiko bileran.

Oniritzia

IÑAKI MARKIEGI  
*Presidentea*

ROSARIO DEL REY  
*Idazkaria*